106/2023 EBAZPENA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEARENA

Espedienteak: 2023/000417

Gaia: …… jaunak jarritako erreklamazioa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari egindako informazioaren sarbiderako eskaera ustez ezetsi diotelako.

AURREKARIAK

1.- Espedientean jasota dago, abuztuaren 9an, …… jaunak honako informazio hau eskatu zuela:

> *«Hezkuntza Sailak eta sindikatuek 2023ko ekainaren 14an egindako mahai sektorialaren bilkuraren grabazioa eskatzen dut.*
> *Hezkuntza Sailak eta sindikatuek 2023ko ekainaren 21ean egindako mahai sektorialaren eta jarraipen-batzordearen bilkuraren grabazioa eskatzen dut.*
> *Hezkuntza Sailak eta sindikatuek 2023ko uztailaren 19an egindako mahai sektorialaren bilkuraren grabazioa eskatzen dut».*

2.- Irailaren 7ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak honako hau ebatzi zuen:

> *«Lehenengoa: Ez onartzea eskatzaileak aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera, 2023/000355 kodearen bidez identifikatua, honako arrazoi honengatik:*
>
> *• Hezkuntza Sailak, 2023/000291 eta 2023/000292 espediente-zenbakidun sarbide-ebazpenetan, aktetan jasotako akordio garrantzitsuei buruzko informazioa eman du, hau da, jorratutako gaiei eta eragile parte-hartzaileek lortutako akordioei buruzkoa. Informazio hori da Sailak grabazioetan jasotako euskarri-informazioan oinarrituta jaso duen informazio bakarra.*
>
> *• Aktetan beraietan aipatzen diren grabazioek, datu pertsonalak babesteari eta intimitaterako eskubideari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, aktentzat euskarri den informazioa jasotzen dute, bai eta bileran parte hartu zutenei buruzkoa ere. Informazio hori ezin da laga edo erreproduzitu grabazioaren helburuaz bestelako helburuetarako, zeinak akta hori egiteko parte-hartzaileen adostasuna baitzuen, laneko barne-dokumentu gisa.*

• Hezkuntza Sailak ez du berariazko baimenik datu horiek beste helburu baterako lagatzeko edo erreproduzitzeko.

• Ildo horretatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 70. artikuluaren 4. apartatua ere aipatu behar da, euskarri-informazioaren tratamenduari dagokionez: "Ez da administrazio-espedientearen parte izango informazio lagungarria edo osagarria, hala nola aplikazio, fitxategi eta datu-base informatikoetakoa, ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta txostenetakoa, izan txostenok barrukoak edo administrazio-organo edo entitateen artekoak, eta orobat administrazio publikoek emandako balio-judizioak, non eta ez diren prozedurari amaiera ematen dion administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak eta aukerakoak"

•Hezkuntza Sailak 2023ko abuztuaren 14an jakinarazi zion interesdunari ezinezkoa zela grabazio horiek lagatzea, eta arrazoia ere jakinarazi zion.

•Horrez gain, adierazi behar da, hezkuntza-administrazioaren zerbitzupeko langileak diren aldetik, eskatzaileak informazioa eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikariekin zuzeneko elkarrizketa bat eskatzeko aukera duela, Hezigunea plataformaren bidez, bere eremu profesionalean edozein motatako informazioa eskatzeko gaitutako Tramitaguneren aplikazioari buruz. Izan ere, izapidea ez dagokio informazio publikoari, hots, ez dago herritar guztientzat irekia, eta, beraz, lan-jarduerarekin lotutako informazioa eskatzeko izapide egokia da. Informazio hori ez da inola ere publikoa edo argitaratzeko modukoa.

• Era berean, ez da justifikatzen zein den grabazioak eskuratzeko beharra eta arrazoia, ez eta zertarako eskuratu nahi den ere, eta ez da hedapen publikoaren justifikaziorik ere egin.

Bigarrena: Ebazpen hau eskatzaileari helaraztea eta jakinaraztea».

3.- 2023ko urriaren 7an, …… jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorde honetan (espediente-zenbakia: 2023/000417), hau adierazteko, zati batean hitzez hitz errepikatzen dena:

> «*2023ko abuztuaren 9an, Hezkuntza Sailaren eta sindikatuen artean egindako mahai sektorialaren esparruko hainbat bilkuren grabazio eskatu nituen, zeinak 2023/000355 espedientean behar bezala egiaztatuta baitaude.*
> *Organo izapidegileak informazio publikoa eskuratzeko eskaera ez onartzeko emandako EBAZPENEAN (ESP: 2023/000355), hartutako erabakia justifikatzeko ZAZPI arrazoi azaltzen dira.*

Hurrengo apartatuetan, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak emandako arrazoiei alegazioak egingo zaizkie.(...)
Ez da zuzena esatea Hezkuntza Sailak informazioa eman zuela eragile parte-hartzaileek eztabaidatu eta lortu zituzten akordio garrantzitsuei buruz. Erreklamazio honen zati gisa, emandako aktak erantsi dira (1. DOK). Akta horietan egiazta daiteke galdera bat egin dela eta horri erantzun zaiola erregistratzera mugatu direla.
Ez da zehazten administrazioak emandako erantzuna, eta argi eta garbi urrundu egiten da eragile parte-hartzaileek jorratutako eta lortutako akordio garrantzitsuak islatzetik.
(…)
Kabinete eta Komunikazio Sailak alegatu du aktetan jasotako informazioa dela Sailak jaso duen informazio bakarra, grabazioetatik ateratako babes-informaziotik abiatuta. Ildo horretan, garrantzitsua da azpimarratzea Sailari dagokiola bileretan jorratutako gaiei buruzko informazioa biltzea.
(…)
Justifikazio hori ez dago behar bezala egituratuta; izan ere, datuak babesteko egungo araudiak ezartzen du grabazioak aktetan laguntza emateko baliatzen direla. Sakoneko azterketa baten ostean, nahasteko joera dagoela igartzen da; izan ere, datuen babesa grabazioen izaerarekin lotzen da.
Hurrengo alegazioan, hirugarrenean, datuen babesari buruzko gaia zehatz-mehatz aztertuko da. Geroago, laugarren alegazioan, grabazio-dokumentuak testuinguru horretan duen izaera eta garrantzia eztabaidatuko dira.
Dena den, alderdi honek adierazi nahi du Sailak ez duela aurkeztu dokumentaziorik grabazioek akten euskarri izaera baino ez zutela erakusten duenik, eta ez da adierazi parte-hartzaileak sailkapen horrekin ados dauden edo ez. Berrespen hori jaso ezean, onargarria da pentsatzea parte-hartzaileek grabazioak bileran gertatutakoa bermatzen eta egiaztatzen duen dokumentutzat hartzea.
Egiaztatutako errealitate bat da aktei erantsitako dokumentuak erabakiak hartzeko garaian funtsezko edukia duten elementuak izan ohi direla. Gure ustez, grabazioek aktetan jasotako informazioa babesteko eta indartzeko bitartekoak dira, bilkuran izandako eztabaida, esku-hartze eta erabakien erreferentzia osoago eta zehatzagoa ahalbidetzen dutenak.
Agerikoa da emandako aktetan erregistratutako informazioaren kalitatea ez dela egokia. Testuinguru honetan, bilkuren grabazioak funtsezko baliabide bihurtzen dira eztabaiden gakoak eta hartutako erabakien eduki zehatza sakonean ulertzeko. Tresna honek bilkuretan gertatzen denaren ikuspegi xehea eta zintzoa eskaintzen du, eta aktetan jasotako informazioari babes baliotsua ematen dio.
(…)

Ez onartzeko ebazpenak, bigarren arrazoian, indarrean dagoen araudia aipatzen du, baina ez du zehazten zeini buruz ari den, eta horrek zaildu egiten dio alderdi honi administrazioak azaldu nahi dituen argudioak ulertzea.

Ustez, Saila gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 15. artikuluaz ari da, zeinak datuen babesari buruz diharduen. Artikulu horrek ezartzen duenez, eskatutako informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluko 2. eta 3. apartatuen arabera bereziki babestutako datuak baditu, ukituen berariazko eta idatzizko adostasuna beharko da.

(…)

Beraz, bereziki babestutako datuak honakoak erakusten dituztenak dira: ideologia, sindikatu-afiliazioa, erlijioa, sinesmenak, arraza-jatorria, osasuna eta bizitza sexuala. Horiek dira ukituaren berariazko eta idatzizko adostasuna behar duten bakarrak.

Garrantzitsua da adieraztea ahotsaren soinua grabatzea ez dela bereziki babestutako datutzat hartzen, eta, beraz, ez duela berariazko adostasunik behar.

Paradoxikoa da Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak bereziki babestutako datuak babesteko duen nahia; izan ere, haiek emandako aktek erakutsi egiten dute bilkuran parte hartzen duten hainbat pertsona sindikatuetan afiliatuta daudela.

Aukera horren aurrean, bi posibilitate daude:

- *Lehenengoa, ez onartzeko errekurtsoan adierazitakoaren aurka, berariazko adostasuna dagoela.*
- *Bigarrena, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak bereziki babestutako datu horiek eman dituela parte-hartzaileen berariazko adostasunik gabe.*

Aipatutako berariazko adostasunik egon ezean, ez litzateke ez onartzeko arrazoitzat hartu beharko, Hezkuntza Sailak helarazi baitio alderdi honi parte-hartzaileen sindikatu-afiliazioa.

(…)

Hasierako baieztapena ukatzen dugu, eta bilkuren grabazioak ez direla osagarriak edo lagungarriak diogu. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, hirugarren atalean, administrazio publikoetako kide anitzeko organoei buruz dihardu. Zehazki, 18. artikulua aktei buruzkoa da

(…)

Nahiz eta egia izan mahai sektoriala ez dela kide anitzeko organo bat, adibide hau aurkezten dugu frogatzeko kide anitzeko organoen bilkuren grabazioak ez direla lagungarriak edo babesgarriak, aktei eransten zaizkien dokumentuak baizik.

Lege-artikuluak bilkurak grabatzeko aukera ematen du, eta ezartzen du grabaziotik ateratako fitxategia eta bilkurako dokumentu gisa erabilitako

euskarri elektronikoko beste dokumentu batzuk bilkuretako aktarekin batera joan daitezkeela. Beraz, aktek grabazio eta dokumentu horiek jasotzen badituzte, ez da legeak hala eskatzen duelako, ez eta nahitaez izan behar duen gutxieneko edukiaren parte direlako ere. Administrazio-kontseiluaren erabakiz grabatzen dira bilkurak, eta grabazio horiek aktan ere haren erabakiz sartzen dira.

Gauza bera gertatzen da egindako mahai sektorialetako bilkuren grabazioekin. Kasu honetan ere, bilkurak grabatzeko eta grabazioak aktan sartzeko erabakia hartu da.

(…)

Hezkuntza Sailak ez du zehaztu, bere irizpidearen arabera, zein diren abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14. artikuluarekin talka egiten duten arrazoiak. Gainera, 18.1.b artikulua modu murriztailean interpretatzen ahalegintzen da, doktrina jurisdikzionalaren aurka.

Garrantzitsua da aipatzea aipatutako legearen 18.1.b artikuluak informazio lagungarri edo babesgarri gisa identifikatzen duela administrazio-organoen edo -erakundeen arteko ohar, zirriborro, iritzi, laburpen, komunikazio eta barne-txostenetan jasotzen dena. Bilkuretako grabazioak informazio lagungarri edo babesgarri gisa hartzeko, ezinbestekoa da artikulu hori modu murriztailean interpretatzea.

(…)

Alderdi honen ustez, eskatutako grabazioak, bilkuran gertatutakoa bermatzen duten dokumentuak direnez, ez daude ezagutza publikotik kanpo, Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14.1 artikuluaren arabera. Era berean, ez da ez onartzeko arrazoitzat ere jotzen, lege beraren 18.1 artikuluaren arabera. Grabazio horiek nire lan-jarduerarekin lotuta egoteak ez du nire eskaera ez onartzea eragin behar.

Bestalde, irailaren 7an, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako langileekin zuzeneko elkarrizketa bat eskatzeko aukera nuela esan zidan egunean bertan, eskaera TRAMITAGUNEren bidez izapidetu nuen (2. DOK). Haatik, ordutik hilabete igaro bada ere, eskaera horri oraindik ez zaio erantzunik eman.

(…)

Dena den, pozarren hitz egingo dut eta nire arrazoiaren xehetasun gehiago emango dizkiot nirekin hitz egin nahi duen Hezkuntza Saileko edozein pertsonari.

(…)».

Erreklamazioarekin batera, honakoak erantsi ditu:

- Ebazpena, irailaren 7koa, Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarena, ebazten duena ez onartzea eskatzaileak aurkeztutako eta 2023/000355 kodearekin identifikatutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera.

- Ebazpena, 2023ko abuztuaren 1ekoa, Hezkuntza Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarena, 2023/000291 espedienteari dagokiona, eskaera baiesten duena eta eskatutako informazioa eskuratzea ebazten duena, hau da, *2023ko ekainaren 14an Hezkuntza Sailak eta sindikatuek egindako mahai sektorialaren akta*.

- Erregistro elektroniko orokorrean irailaren 7an erregistratutako eskaera. Haren bidez, ……. jaunak honako hau eskatzen du:

  «Gaia:
  Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikariekin zuzenean hitz egitea
  Adierazten dut:
  Ulertu dudanez, hezkuntza-administrazioaren zerbitzupeko langilea naizen aldetik, informazioa eta Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako teknikariekin zuzeneko elkarrizketa bat eskatzeko eskubidea dut. Hori jakinarazi dit idatziz Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak
  Eskatzen dut:
  Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikariekin zuzenean hitz egitea eskatzen dut, erantsitako dokumentuan adierazitako alderdiei buruz hitz egiteko».

4.- 2023ko urriaren 10ean, Batzordeak erreklamazioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidali zion elektronikoki, sail horrek hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, gaiari buruzko txostena egin zezan, eta hura ebazteko esanguratsutzat jotzen zituen agiriak aurkez zitzan.

5.- Horretarako emandako epea igaro da, eta ebazpen hau idatzi denerako, Hezkuntza Sailak oraindik ez du alegaziorik egin. Beti hartu behar dira kontuan informazioa eskuratzeko mugei eragin diezaieketen aldagaiak edo eskatutako informazioa emateko egon daitezkeen zailtasunak. Hori kontuan hartuta, adierazi behar dugu komenigarria zatekeela Sailaren irizpidea ezagutzea, hark judizio-elementu garrantzitsuak eman baitzitzakeen esku artean dugun kasuari buruz erabakitzeko. Nolanahi ere, batzorde honi lagundu ez izana deitoragarria izan arren, Sailak alegaziorik ez egiteak ez du eragozten aurkeztutako erreklamazioa ebaztea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 1. artikuluan ezartzen duenez, aipatutako Batzordeak bere egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, GIBGOL) laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako eginkizunak.

2.- Era berean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Batzordeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta EAEko sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, GIBGOLen 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

3.- Bestalde, GIBGOLek 13. artikuluan ezartzen duenez, informazio publiko dira I. tituluaren aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere. Horri dagokionez, erreklamazioak aipatutako informazioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dago eta GIBGOLen aplikazio-eremuan sartzen da subjektu hori.

4.- Erreklamazioaren ondoreetarako, informazio-eskaera 2023ko abuztuaren 9an aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, horretarako ezarritako prozeduraren bidez. GIBGOLen 20.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, aipatutako erakundeak hilabeteko epea zuen ebazpena emateko eta jakinarazteko.

5.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2023ko irailaren 7an eman zuen ez onartzeko ebazpena, hau da, horretarako ezarritako epearen barruan. Egun horretan bertan jakinarazi zitzaion ebazpena, eta egun horretan bertan jaso zuela adierazi zen. Izan ere, irailaren 7an bertan, ……. jaunak Hezkuntza Sailera jo zuen, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikariekin zuzeneko elkarrizketa bat eskatzeko, ebazpen horretan jasotzen den moduan. Hala ere, ez zen egin, Hezkuntza Sailak *Hezigunea plataformaren bidez bere eremu profesionalean edozein motatako informazioa eskatzeko gaitutako Tramitaguneren aplikazioari buruz* xedatzen duen moduan, baizik eta erregistro elektroniko orokorraren bidez.

6.- GIBGOLen 24.2 artikuluak dioenez, erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, hau

xedatzen du 30.4 artikuluan: «*Epea hilabetetan edo urtetan jartzen bada, berriz, egintza jakinarazi edo argitaratu den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da, edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten den egunaren biharamunetik.*
Epearen amaierako hilabete edo urtean, jakinarazpena, argitalpena edo administrazio-isiltasuna gertatu den egun berean amaituko da epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da».

Beraz, 2023/000355 espedienteari buruzko ebazpena irailaren 7an jakinarazi zenez, erreklamazioa jartzeko epea urriaren 7an amaitzen zenez eta egun horretan jarri zenez, epe barruan jarri zela ulertu behar da.

7.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubideak onarpen zabala du bere ordenamendu juridikoan, eta, ondorioz, eskubide horren eraginkortasuna edonola murriztu aurretik, mugak zorrotz interpretatu behar dira eta, aplikazioa, berriz, berariaz eta neurriz arrazoitu behar da. Auzitegi Gorenak ere horrela egin behar dela agindu du behin eta berriz; ikusi, bestela, zer dioen 2020ko ekainaren 11n eman zuen epaian (ECLI:ES:TS:2020:1558):

«Abenduko 19/2013 Legearen zioen azalpenean ezartzen denez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, pertsona guztien titulartasunekoa, informazioaren izaeragatik beragatik edo babestutako beste interes batzuekiko gatazkan sartzeagatik beharrezkoa denean bakarrik mugatuko da; eta, aurreikusitako mugak aplikatuko dira kaltearen (mugarekin babesten den interesaren) eta hedapenaren interes publikoaren (kasu zehatzean informazioa zabaltzeko interes publikoa ez nagusitzea) test baten arabera. Gainera, modu proportzionatuan eta xedearen eta helburuaren arabera mugatuko da.
Auzitegi honek aukera izan du –Auzitegi Gorenaren 2017ko urriaren 16ko 1547/2017 Epaia (75/2017 errek.) eta Auzitegi Gorenaren 344/2020 Epaia (8193/2018 errek.)– informazio publikoa eskuratzearen aurkako mugei buruz honako hau adierazteko: "(…) Informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzeko eta legez arautzeko formulazio zabal horren zioz, zehatz-mehatz (eta batzuetan modu mugatzailean) interpretatu behar dira bai eskubide horren gaineko mugak, 19/2013 Legearen 14.1 artikuluan zehazten direnak, bai 18.1 artikuluan zerrendatuta agertzen diren informazio-eskaerak ez onartzeko kausak (…), eta ezingo da onartu informazioa eskuratzeko eskubidea modu ez justifikatuan eta neurrigabean kaltetzen duen mugarik".
Beraz, justifikatuta eta proportzionatuta dauden mugak baino ez dira onargarriak, hala xedatzen baitu 19/2013 Legearen 14.2 artikuluak: "(…)2. Mugak xedearen eta babes-helburuaren araberakoak izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa eskuratzea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen". Horrenbestez, informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izatea ez da Administrazioaren ahalmen diskrezional bat, eta legez ezarritako

kasuetako bat gertatzen denean bakarrik da posible, hots, eskatzaileak behar bezala egiaztatzen duenean eta xedearen eta helburuaren arabera proportzionatua eta mugatua denean (3. OJ)»

8.- Beste behin ere, Batzorde honek nabarmendu behar du, enplegu publikoari buruzko informazioaren kasuan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bereziki babestuta dagoela, gardentasuna jarduketaren funtsezko oinarria baita, bai eta enplegatu publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiboaren kasuan ere.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 1.3 h) artikuluan ezartzen du ezen gardentasuna jarduketa ororen oinarria dela, eta negoziazio kolektiboari buruzko 33.1 artikuluan honako hau zehazten du: «*Funtzionario publikoen lan-baldintzak finkatzeko negoziazio kolektiboa, betiere legezkotasuna, aurrekontu-estaldura, betebeharrezkotasuna, negoziatzeko fede ona, publizitatea eta gardentasuna printzipiotzat hartuta egingo da, kapitulu honetan aurreikusitakoa eta Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.3.c), 7.1 eta 7.2 artikuluetan erakunde sindikalei aitortutako ordezkaritza-gaitasuna baliatuz*».

Horretarako, negoziazio-mahaiak eratzen dira, eta bertan egoteko legitimatuta daude, alde batetik, dagokion Administrazio Publikoaren ordezkariak –Administrazio Publikoa GIBGOLek behartutako subjektua da– eta, bestetik, ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak (sindikatu horiek formalki izendatutako ordezkari hautatuen bidez jarduten dute edo, bestela, erakunde sindikalak bilkurarako izendatutako pertsonen bidez, nahiz eta pertsona horiek erakunde sindikalaren ordezkari hautetsiak ez izan). Sindikatuak lege horren 2.1 artikuluan aipatutakoez bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak dira, baina funtzionario publikoen lan-baldintzak defendatzeko negoziazio-prozesuan funtzio publikoak betetzen dituztenez, informazioa ematera behartuta daude, Administrazioak gardentasun-betebeharrak bete ditzan.

Horri buruzko hainbat epai daude dagoeneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ere bere iritzia eman du, 2021eko urriaren 5eko 369/2021 Epaiaren bidez –herritar batek Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioko eta zerbitzuetako langile funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen negoziazio-mahaiaren aktak eskuratzeko egindako eskaera bati buruzkoa da–. Zera dio bere 48. oinarri juridikoak:

> *«48. Hala ere, negoziazio-mahaiek lan-kontratudunen eta funtzionarioen eremuan gauzatzen dute negoziazio-prozesua, eta haien lan-saioak dokumentatzen duten aktak egiten badira –kasu honetan egin dira– eta UPV/EHUren zaintzapean badaude, sala honen ustez, argi dago ezin direla informazio osagarritzat edo lagungarritzat hartu,*

erakunde publikoaren asmoa osatzeko prozesua barne hartzen baitute; 19/2013 Legearen 13. artikuluaren arabera, informazio publikotzat hartzen da».

Eta 52.etik 55.era bitarteko oinarri juridikoetan honako hau azaltzen da:

«52. Gehitzen du eskatutako informazioak aukera ematen duela jakiteko nola hartzen diren UPV/EHUn langileen kudeaketari buruzko erabakiak, eta hori da, hain zuzen, 19/2013 Legearen izateko arrazoia
53. Salak bat egiten du iritzi horrekin. Negoziazio kolektiborako eskubidea sindikatuetako ordezkarien bitartez gauzatzen da, eta aurreikusitako negoziazio-mahaiei esker zehazten dira eremu horretako enplegatu publikoen lan-baldintzak (EPOEren 33. artikulua)
54. Manu horren arabera, negoziazio kolektiboa legezkotasun-printzipioaren, aurrekontu-estalduraren, betebeharrezkotasunaren, negoziatzeko fede onaren, publizitatearen eta gardentasunaren printzipioen mende dago, eta horrek baztertu egiten du negoziazioen sekretua, haien interes publikoa kontuan hartuta, ez baita ahaztu behar haren emaitza zuzenbide-iturri bihurtzen dela eta negoziazioaren eremuan barne hartutako pertsona guztiak behartzen dituela.
55. Negoziazio-mahaien saio bakoitzaren emaitza akta batean dokumentatzen bada, nahitaezkoa ez bada ere, ez du ezerk eragozten eragindako langileek akta horien bitartez negoziazio-prozesuaren berri izatea, eta ez da argudiatu behar horrek sindikatu-askatasunari eraso egiten diola, eskubide horrek berekin baitu negoziaziorako eskubidea. Hala ere, publizitatez eta gardentasunez egin behar da, eta sindikatuetako ordezkarien jarduna ordezkatutako langileek aztertu beharra dago».

8.- Hori esanda, eskatutako informazioaren edukian sartu behar dugu, hau da, lehenik eta behin, aktaren nahitaezko edo beharrezko edukiari eta hautazko edukiari heldu behar diogu, zeina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotzen baita, eta 18.1 artikuluan honakoa xedatzen baitu: «*Kide anitzeko organoaren bilkura guztietako akta egingo du idazkariak. Akta horretan, nahitaez, honako hauek jaso behar dira: bildutakoak, gai-zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako argudio nagusiak eta erabakien edukiak*». Hori bat dator akta izan beharreko edukiarekin. Eztabaida eta deliberamenduak, osorik hartuta, eta kide bakoitzak adierazitako iritziak ez dira behar den gutxieneko edukitzat hartuko. Bestalde, konfidentzialtasun-bermeak edo eztabaidatutakoa isilpean gorde beharrak ez du barne hartzen eztabaidatu zenari eta, are gutxiago, bilkura horretan hartutako akordioen edukiari buruzko aipamen orokor hutsa. Aitzitik, alderdi horiek ezagutzeak bermatzen du administrazio organoak gai jakin batzuk eta horretarako hartutako erabakiak tratatu zituela.

Indarrean dagoen Sektore Publikoaren 40/2015 Legeak aukera ematen du aktan beste alderdi batzuk sartzeko, kide anitzeko organoaren bilkuraren grabazioa edo kide baten esku-hartzearen transkripzio osoa barne, baina eduki gehigarri hori hautazkoa baino ez da, edo interesdunak eskatu behar du. Hala ondorioztatzen da 18.1 artikuluaren azken tartekian eta arau horren 19.5 artikuluan xedatutakotik. Lehenengoan honako hau xedatzen da: «*Kide anitzeko organoak egindako bilkura guztiak grabatu ahalko dira. Grabaziotik lortzen den fitxategia, grabazioaren autentikotasunari eta osotasunari buruz idazkariak egindako ziurtagiria eta bilkuran euskarri elektronikoan erabiltzen diren dokumentu guztiak bilkura-aktarekin batera jarri ahalko dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jasotzeko premiarik izan gabe*». (18.1 art.).

Laburbilduz, manu horiek irakurrita, ez da ondorioztatzen kide anitzeko organo baten bilkuretako aktek, behar den gutxieneko eduki gisa, kide bakoitzaren deliberamendu osoa eta iritzi eta adierazpen osoak jasotzen dituztenik. Baina grabazioak, aktari eransten zaizkionean, printzipioz, ez daude ezagutza publikotik kanpo, GIBGOLen 14.1.k) artikuluaren babesean. Izan ere, nahitaez sartutako datuek ez dute eraginik kide anitzeko organoaren borondatearen eraketan eskatutako konfidentzialtasun-bermean edo sekretuan, jurisprudentzian interpretatu den moduan.

Beraz, aktetan grabazio eta dokumentu horiek jasotzen badira, ez da legeak hala eskatzen duelako, ez eta horien behar den gutxieneko edukiaren parte direlako ere, baizik eta organoak bilkurak grabatzeko eta grabazioak aktan sartzeko erabaki bikoitza hartu duelako.

Baina, kasu honetan, grabazioak ez dira aktetan sartzen, Hezkuntza Sailak alegatzen duen moduan, baizik eta elementu lagungarri bat da, ondoren aktak egiteko helburua duena. Argi dago grabazioetan jasotzen direla erabakiak hartzeko prozesuaren aurretik egingo diren eztabaida-jarduerak, eta, beraz, GIBGOLen 14.1.k) artikuluan ezarritako mugak eragin diezaiokeela, hots, erabakiak hartzeko prozesuetan eskatzen den konfidentzialtasun-bermeak edo sekretuak. Gainera, grabazioan, parte-hartzaileak identifikatuko lirateke. Hala, alde batetik, kide anitzeko organo horretako kideei grabaziorako sarbidea eman beharko litzaieke, interes legitimoa dagoelako. Dena den, hirugarrenek sarbidea emateko, kasu honetan gertatzen den bezala, interesdunen adostasuna beharko litzateke, betiere ukitutakoen datuak babesteko eskubidea gailenduz.

Hori esanda, Batzorde honek Hezkuntza Sailari eskatzen dio ukituen adostasuna eska dezan, gai horretako akordioen aurreko eztabaidak nola gertatzen diren jakiteko interes legitimoa duela egiaztatzen duen bati grabazioetarako sarbidea emateko.

Halaber, gomendatzen da aktetako edukian zehaztasun handiagoz jardutea *eztabaidetako puntu nagusien inguruan, bai eta hartutako erabakien edukiaren*

inguruan ere, enplegu publikoaren kudeaketa bideratu behar duen gardentasun-printzipioa bete dadin. Batzorde honek aztertu zuen Hezkuntza Sailak interesdunari aurkeztutako akten testua, alderdi horri zegokionez eta zehaztasun handiagoz, eta akta horietan hauteman zituen defizitei buruz ondorioztatu zuen 85/2023 Ebazpenean, 2023/000361 erreklamazio-espedienteari buruzkoan, ez zegokiola ebazpen honi eranstea, oroigarri gisa ez bazen behintzat.

Aurreko guztia kontuan izanik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, aho batez, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Azaldutako aurrekari eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, egokia da jarduketak ATZERA ERAMATEA, Hezkuntza Sailak …… jaunak egindako eskaeraren berariazko ebazpena eman dezan, eta, behar den haztapenarekin, informaziorako sarbidea eman edo uka dezan, eskaeraren xede diren grabazioek ukitutako pertsonek esan beharrekoa entzun ondoren.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea erreklamatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

Hirugarrena.- Ebazpena Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen webgunean argitaratzea, behin erreklamatzaileari jakinarazpena egin eta datu pertsonalak bereizi ondoren.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10.1.m) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran ageri den egunean

Batzordekidea

Ana Isabel García Maté

Batzordekidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Batzordeburua

Miren Martiarena Barkaiztegi